

EUSKO DORREA

© David Ondars

Pantxo

Pantxika

Pantxo 2

Pantxika 2

Battitta DiaKasu

Aña

Manez d'Ossès

Miss Amatxi

DenboraPasa

Pasaporte

Panpi

Père Furra

Armiarma1

Armiarma2

Telebistako emankizuna da Eusko Dorrea, Fort Boyard-ko kopia bat. Bi aukezle eszenaren erdian dira eta saioa hasiko da Fort Boyard-ko musikarekin.

Pantxika : Egun on eta ongi etorri deneri Eusko Dorrearen lehen alera !

Pantxo : Gaur, lau izarrak jinen dira eusko asko irabazteko gogoarekin

Pantxika : Orhoitarazten dugu, elkarte batentzat etortzen direla

Pantxo : Bai, gure partehartzaileak Armendaritzeko eskolarentzat arituko dira

Pantxika : Joan den otsailan Paueko manifestaldian, fresak pagatzeko

Pantxo : Nolaz ez, 15 Pom'Potes eta 20 Choko BN

Pantxika : Has gaitezen gure lehen partehartzailearekin !

Pantxo : Itsasutik heldu zauku. Gaur egungo pilotaririk hoberena : Battitta Dia Kasu !

Rocky musikaren gainean sartuko da, pilotako jestuaz eginez ; eskuak hunkitzen, ariketak egiten. Publikoa agurtzen du eskuarekin.

Pantxika : Battitta, gaurko kirolaria, untsa zira ?

Battitta : Bai bai, Panpirekin untsa entrenatu gira eta espero irabaziko dugula

Pantxo : Prest zira eusko asko irabazteko ?

Battitta : Bai, Panpirekin taktika martxan ezarri dugu eta espero irabaziko dugula

Pantxika : Ados, hitz bat gure ikusleentzat ?

Battitta : Panpi maite zaitut !

Pantxo : Gure bigarren partehartzailea, amikuzetik heldu zauku bere ahots ederrarekin : Aña Etchegoyen !

Anne Etchegoyenen musikaren gainean sartuko da Aña, lasaiki, printseza bezala

Pantxika : Egun on Aña, untsa zira ?

Aña : *(animaleko frantses akzentuarekin)* Bai ongi nago, oso pozten nago hemen izaiteagatik *(irri faltsu batekin)*

Pantxo : Ados, hitz bat gure ikusleentzat

Aña : Bakea

Pantxika : Untsa ! Huna gure hirugarren partehartzailea. Ortzaitzetik etortzen da, Hatsa kirolgela berriaren langilea : Manez d'Osses !

Electro musikaren gainean sartuko da Manez, kirolezko ariketak eginez.

Pantxo : Ongi Etorri Manez ! Prest zira ?

Manez : Bistan dena prest naizela ! Eta zuek ? Prest zirezte ? 1 eta 2, 3 eta 4, 5 eta 6
(*ariketak egiten ditu*)

Pantxo : Manez otoi ! Ez gira zure kirolgelan ! (*gelditzen du*) Eta gainera nik ez dut ariketen beharrik, xokolatezko plakak baitditut.

Pantxika : Bah xokoleta ?! Nutela bai !

Pantxo : Eta azken partehartzailea, Larzabaletik heldu zauku, 2018ko Miss Amatxi !

Emeki emeki sartzen da amatxi, besteek laguntzen dute fiteago egiteko.

Pantxo : Miss amatxi ! Ongi etorri eta goresmenak zure sariarentzat !

Amatxi : Bah errexa zuxun, beste amatxi guziak xehatu ditxit

Pantxika : Ah bon ? Iduriz epaileek biziki maitatu dute zure euskal bixkotxa, hala zela ?

Amatxi : Bah, gainera tronpatu nuxun : litro bat Rhuma ezarri nian ! Denak mozkorrak zitian, bana ene bixkotxa fini eta apreziatu, siouplet !

Pantxo : Ados, gosea piztu dautazu !

Pantxika : Eta bistan dena gure bi adixkide fidelak

Pantxo : Pasaporte eta PasaDenbora !

Bi nanoak sartzen dira, belaunikaz kurritzen dira. Besteak irriz hasiko dira.

Battitta : Zoin hiz hi ?

Pasaporte : Ni Pasaporte

Battitta : (*Besteer*) Eh ! Sakelan sartzen duk xutik'e ! (*irri karkailaka*)

Amatxi : Ta hik nola duk izena deia?

PasaDenbora : Ni, Pasadenbora ! Bainan ene egiazko izena dut Etcheverrygaraylazkano

Amatxi : He ! Etcheverrygaraylazkano ? Izena luzea'uk hi baino ! (*Irriz*)

Pantxika : Are, gure lehen probara pasa gaiten !

Fort Boyard-ko Musika abiatzen da eta denak ateratzen dira. Amatxi emeki emeki doa, kasik « sur place ». Besteek denbora ukanen dute itzulia egiteko baina berak ez.

Pantxika2 : Horra, gure lehen ariketa : Battitta zurekin hasiko gara.

Battittak eskua altxatzen du.

Pantxo2 : Barnean atzemanen duzu Shwarzy deitzen dugun gizon bat, 120 kilo ditu eta taikwendo erakaslea da.

Pantxika2 : Gakoa bere zinturan du eta K.O eman beharko duzu gakoa ukaiteko.

Pantxo2 : Prest Battitta ?

Battitta : Panpi erran daut beti prest izaiteko

Pantxika2 : Untsa Battitta, 3, 2, 1 jo !

Battitta sartuko da eta entzunen dira golpeak, eta berak alimaleko zafraldia hartzen. Besteek animatzen dute.

Denek : Battitta xehazak ! Battitta xehazak ! Battitta xehazak !

Pantxika2 : Aïe Aïe Aïe alimaleko zafraldia biltzen du gure Battitta gaixoak !

Pantxo2 : Erran zerbait motibatzeke ?

Panpi sartzen da.

Panpi : Agur jaunak ! Jaunak agur !

Battitta : Panpi ? Panpi ?

Panpi : Bai ene haurra

Battitta : Oh Panpi ! Partida galtzen ari nuk

Panpi : Aski duk imajinatzea Peio Larralde dela

Hor, Battittak oihu bat botako du eta sartuko da enerbaturik, zintura eta gakoa hortzen artean. Zakur bat iduri du. Aurkezleak kenduko dako zintura baina ez du errexki utziko.

Denek : Aupa Battitta !

Panpi : Biba hi ttunttunlin !

Battittak bere besoetara doa.

Battitta : Milesker Panpi ! Milesker ! Badakizu zu gabe, deus naizela !

Panpi : Agur jaunak ! Jaunak agur !

Panpi joaiten da.

Pantxika2 : Lehen gakoa atzemana !

Pasaporte eta PasaDenborak dantza bat eginen dute musika baten gainean eta 1eko jestua eginen dute.

Pantxo2 : Orain, gure Père Furra mitikoa ikusteko parada ukanen du norbaitek eta zu izanen zira Manez ! Are goazen !

Manez : Youpi ! Ta bat, bi eta hiru lau (*beti kirol jestua eginez*)

Denak joanen dira, Amatxi laguntzen dute joaiteko. Père fourra sartzen da beste eskualdean « furra furra » musikaren gainean. Manez eta Pasaporte sartzen dira.

Père Furra : (*Zahar botzarekin*) Egun on Manez eta egun on Pasaporte, untsa ?

Pasaporte : Aspertzen nau bere ariketarekin, uste du, hori esker haundituko naizela !

Manez : Bai, erran dakot ez dituela aski luzaketak egiten

Père furra : Bon bon, abia gaitezen. Enigma bat eginen dautzut, ez baduzu untsa erantzuten, gakoa itsasora botako dut. Ulertu ? (*Manez Bai eginen du buruarekin*) Gorputzaren parte bat atzeman beharko duzu...

Manez : Espalda ? Gerria ?

Père furra : Ez niz hasi ! Zozoa ! Bon, hasten naiz :

Humano baten motorra naiz baina ez dut oligo beharrik funtzionatzeko baizik eta jakitate ainitz. Hori gabe erraiten da zozoa naizela eta sobera dutalarik harro putza naizela. Nor naiz ?

Manez : Pffff ! (*publikoari*)

Père furra : Gorputzaren parte inportanteena ?

Manez : Euh... abdos fessiers ?

Père furra : Ez ! Gorago !

Manez : Euh... gainage pektoro ?

Père furra : Bon are, galdua da ! Erantzuna zen : burua !

Manez : Burua ? Ah ez dut ezagutzen muskulu hori, bizkarrean da ?

Père furra : Are, gakoa urarat !

Pasaporte : *(gaitzitua)* Merexi !

Père furra gakoa botatzen du publikora, ezker aldean.

Manez : Zahar ustela, ez etorri ene kurtsorat ! Ehun gainage cardio eginen dauzkizut bestenaz ! *(pasaporte pusatzen du)*

Père furra joanen da, irriz.

Père furra : *(partitzean eta publikoari)* Alala gazte ta ments...

Denak partituko dira eta besteak sartuko dira, bat « tubas » eskuan.

Pantxo2 : Ulertu duzuen bezala gakoa uran da

Battitta : Bai ulertu diagu bai ! Gure Veronique et Davinak galdu dik !

Pantxika2 : Norbait joan behar da

Amatxi : Nik eginen dixit

Pantxo eta Pantxika : Zuk ? *(Harritua)*

Amatxi : Ba, diploma ukan dixit en 63

Pantxo2 : Ze diploma ?

Amatxi : Ebé petite grenouille !

Pantxika2 : Bon bé, joan beraz

Tubas eta maska ezartzen du. Publikoan sartzen da. Lehenik zangoa sartzen du eta berriz kentzen.

Amatxi : Pouah hotza duxu !

Sartuko da, « brasse » mugimenduak eginez.

Amatxi : *(norbaiti)* Hori zer da ? Atuna hain segur ! *(Gizon bati)* Ta hi ? Commandant Cousteau ? *(hurbiltzen da)*

Besteek : Ezker ! Ezker !

Amatxi : Badakit ez dela ezer ! Debru inutilak ! *(atzematen du)* Ah ! Atzemana ! *(Publikotik Norbaitek pasatzen badu)* Milesker Nemo ! *(oihukatuz)* Atzemana'ixit ! Atzemana'ixit !

Battitta : Erna zite Amatxi Manaudou !

Manez : Gehiago pleatu besoak, gerria untsa lantzeko (*mugimenduak eginez*)

Aña : Kantu batekin lagunduko zaitut (*hasten da Boga Boga kantatzen*)

Besteak : (*beharriak tapatuz*) Geldi ! Geldi !

Berriz eszenaren gainean agertzen da.

Amatxi : (*Manezi*) hire pitokeria arrañatu dixit to !

Pantxo2 : Zonbat gako ditugu?

Pasaporte eta Pasadenbork jestua eginez : 2 !

Pantxika2 : Are hirugarren proba, armiarmarena ! Norbait berotzen ?

Denak begiratzen dira.

Battitta : Aña, zuk animaleak maite dituzu ez ?

Amatxi : Bai xorieri mintzo zen ostion

Manez : Ba ta xoria zuen maite

Aña : Lasaitasuna eta bakea hedatuko dizkiot Armiarmari !

Musika abiatuko da, amatxi emeki doa beti. Besteek beti laguntzen dute.

Gibelelik entzunen da : « Aña 3. 2. 1 sartu ! ». Sartuko da eta gela hutsa izanen da.

Alimaleko armiarmak sartuko dira, bat eskuinetik eta bestea ezkerretik. Añak beldur ukanen du.

Armiarma1 : Uuuh gu gira Mega Armiarmak !

Armiarma2 : Uuuh glyfosata maite dugu !

Armiarma1 : Uuuh Monsanto gure maisua da !

Armiarma2 : Uuuh haugi hunarat gakoa nahi baduzu !

Beldurra ukanen du eta hasiko da kantatzen

Armiarma1 : Aski ! Aski ! (*segitzen du kantatzen*) Ixil zite ! (*segitzen du*)

Armiarma2 : Oizu gakoa bainan ixil otoi !

Gakoa emanen dio eta eskapatuko dira. Besteak sartuko dira beldurtuak.

Pantxo2 : Zer pasatu da ?

Pantxika2 : Oihuak entzun ditugu

Aña : Kantatu dut bakarrik, ez dut ulertzen...

Pantxo2 : Bon hirugarren gakoa irabazia

Pasaportek eta PasaDenborak jestua egingen dute : 3 !

Pantxika2 : Orain bukaerarat hurbiltzen gira

Pantxo2 : 3 gako, 3 indize, hitz bat atsemaiteko

Pantxika2 : Horiek dira hitzak : Mahatsa – Irouleguy – Kristoren gorputza

Denak : Euh...

Pantxo2 : Aña ! Hitz horrek laguntzen du botza berotzeko !

Aña : Eztia ?

Pantxika2 : Battitta ! Alkola bat eguerditan edaten dena

Battitta : Panpik erran daut alkolarik ez edateko

Pantxo2 : Manez, zer edaten da gasnarekin ?

Manez : Euh... Red Bull ?

Pantxika : Amatxi ? Zer edaten zinuen en 53 eskolan ?

Amatxi : eh bé ! (*denak begiratzen dute*) ARNOA !!

Pantxo2 : Hori da ! Zoazte zuen lekurat !

Lauak aterako dira, bi nanoekin.

Pantxika2 : Felicia ! Ahatxe buria !

Musika entzunen da, irabazi dute. Sartuko dira bat bestearen ondotik eta berritz ateratuko dira. Zer nahi izan behar da.

Pantxo2 : Milesker publiko maitea !

Pantxika2 : Ondoko kandidateak, Iholdiko zahar etxetik jinen dira, flipper eta auto-tamponeusak pagatzeko.

Pantxo2 : Izan untsa eta ez ahantz : eusko dorrea, asko dirua !

Pantxika2 : Asko bordela bah !

(OIHALA)


Antzerki testu hau Euskal kultur erakundearen web-atarian zintzilikatua izan da, egilearen baimenarekin, <http://antzerkit.eke.eus> helbidean, Iparraldeko euskarazko antzerki testuak biltzen dituen atal batean.

© Copyright lizentziapean zabaldua da.

Ondorioz, ezin zaio inolako aldaketarik ekarri egilearen baimenik gabe.

Ilido beretik, antzerkia publikoaren aitzinean eman nahi izanez gero, egilearen baimena eskuratu behar da derrigorrez (edota egilearen eskubideak kudeatzen dituen pertsona edo erakundearena).

Harremanetan sar daiteke zuzenenean berarekin edo Euskal kultur erakundearen bidez antzerkia@eke.eus helbidera idatziz.



antzerkit.eke.eus

Ce texte provient du recueil d'œuvres théâtrales en langue basque mises en ligne avec l'accord de leurs auteurs dans une rubrique du site de l'Institut culturel basque à l'adresse <http://antzerkit.eke.eus>.

Il est diffusé sous une licence © Copyright. De fait, aucune modification ne peut lui être apportée sans autorisation de l'auteur.ice.

De même, cette œuvre ne pourra être donnée en public qu'après avoir obtenu l'accord de l'auteur.ice (ou de la personne ou de l'organisme la représentant). Vous pouvez, à cette fin, le/la contacter directement ou obtenir ses coordonnées par le biais de l'Institut culturel basque en adressant un message à l'adresse antzerkia@eke.eus.